

Gure enpresak zerbitzu sozial bat eskaintzen du, non baztertuak izan diren haurrak eta familiak birgizarteratze prozesu egoki bat eskaintzen dugun. Beraz, gure baliorik handienak inklusioa eta birgizarteratzea dira.

Gizarte honetan inklusioari buruz asko hitz egin eta bultzatzen da baina, inklusioa eman beharrean integrazioa ematen da. Gizartea ez da pertsonen beharretara moldatzen, alderantziz, beharrak dauzkaten pertsonak gizarte honetara moldatzera behartuta ikusten dira.

Gizarte honek inposatzen duena eta onuragarritzat hartzen duena integrazioa bultzatzea da. Integrazioa kontzeptua "on" edo positibotzat margotzen digute eta orokorrean ondo iruditzen zaigu. Hori da benetako arazoa, integrazio kontzeptua inklusio kontzeptuarekin nahastea, eta inklusio hitzaren benetako esanahia ez jakitea. Inklusioak, integrazioak ez bezala, gizartearen aldaketa bat eskatzen du, gizartea da pertsona anitz guzti horietara moldatu behar dena, eta ez alderantziz. Horregatik, inklusioaren kontzientziak bermatu nahi dugu.

Gure ideia berritzailea dela sinesten dugu, gizartean gabezi eta hutsune handia ikusi dugulako aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioan, eta txikitatik inklusioa bermatzen hastea garrantzitsua dela uste dugu. Horregatik gu hutsune hori estaltzera gatoz.

Espainiako estatuan diskriminazioari buruzko inkesta baten parte hartu zuten %41ak normala ikusten zuen aniztasun funtzionala duten pertsonen diskriminazioa. Izan ere, Espainiar estatuan aniztasun funtzionala dutenentzako eskola espezifikokoak oraindik existitzen dira, eta beste hainbat eskoletan badaude oraindik aniztasun funtzionala duten haurren segregazioa sortzen duten gela egonkorra bezalako espazioak. Modu honetan gainerako ikasleengandik bereizita ikasten dute haur hauek, haien ikaskideekin harremanik izan gabe, eta benetako inklusio eskolarra ezin bermatuz.

Durangaldean aniztasun funtzionala duten eta ez duten pertsonak elkartzen dituen erakunderik ez dugu ezagutzen. Elkarrengandik ikasteko, laguntza eskaintzeko eta hurrek eta familiek kontzientzia hartzeko, haien arteko elkarrekintza eta interakzioa ezinbestekoa dela uste dugu, beste errealitate batzuk ere existitzen direlako. Hurrei mota desberdinetako pertsonekin egotea, gizartearen irudi integralagoa bat izatea ahalbidetzen die, hurrek aurrerantzean aurreiritziak edukitzea saihestuko dituen, eta haur guztien sozializazio prozesuan asko laguntzen du elkarrekin jolastea, ezagutzea, harremanak sortzea eta laguntzea.

Aniztasun funtzionala duten pertsonekin esperientzia duten monitoreak eta prestatutako personalagoa izango ditugu gure proiektuaren parte ere. Gaietan jantzita dauden

profesionalen eta pertsona asertiboz egongo da osatua gure lan taldea, eta gure lanari balioa gehitzen dio lan talde honek.